

Zk-5505

AGINDUA, 2003ko urriaren 3koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txitxardina edo angula hartzea debekatu duena.

Otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txitxardinaren arrantza arautu zen, bai eta, besteak beste, lizenziak ematea, lizentzia-motak, indarraldia edo baimendutako arrantza-tresnak.

Halaber, aipatutako 41/2003 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, orohar, txitxardinaren arrantzaldia urriaren 15ean hasi eta hurrengo urteko martxoaren 15ean amaitzen da. Aldi horretatik kanpo debekatuta dago txitxardina harrapatzea.

Artikulu horretan xedatutakoa gorabehera, eta kontuan hartuta Prestige petróleo-ontziak isuritako fuel-olio emulsiónatua euskal kostaldera etengabe datorrela, komenigarria da zuhurtziaz eta aldi baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txitxardinaren arrantza debekatzea.

Debeku horren oinarria egun eskura ditugun datu tekniko eta zientifikoetan datza. Nolanahi ere, neurri hori aldi baterako hartu da, eta, txosten zientifikoek horretarako bide ematen duten unean berriz ere irekiko da txitxardin-arrantzaldia.

Adierazitakoaren arabera, eta Itsas arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legean eta ezargarri diren gainerako arauetan zehaztutakoarekin bat etorri, honako hau

EBATZI DUT:

Lebenengoa.— Zuhurtziaz eta aldi baterako Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txitxardinaren arrantza debekatzea, harik eta kontrakorik xedatu arte.

Bigarrena.— Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta beraren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko erre Kurtso aurkeztu ahal izango diote Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-erre Kurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 3a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SAENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Nº-5505

ORDEN de 3 de octubre de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se prohíbe preventivamente el ejercicio de la pesca de la angula en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

A través del Decreto 41/2003, de 18 de febrero, se ha regulado el ejercicio de la pesca de la angula en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como, entre otros aspectos, la concesión de licencias, sus clases, su período de validez o las artes autorizadas.

Asimismo en el artículo 6 del mencionado Decreto 41/2003, se establece con carácter general que la temporada de pesca de la angula comprende desde el 15 de octubre hasta 15 de marzo del siguiente año, estando prohibida su pesca fuera de estas fechas.

No obstante lo dispuesto en el citado artículo, y habida cuenta de la continuada afluencia a la costa vasca de fuel emulsionado procedente del vertido del buque petrolero «Prestige», resulta conveniente establecer, de forma preventiva y temporal, una prohibición sobre la pesca de la angula en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El motivo de esta medida se basa en los datos técnicos y científicos con los que en la actualidad se cuenta. Ahora bien, dado el carácter temporal de esta medida, se reabrirá la temporada de pesca de la angula una vez que los informes científicos así lo aconsejen.

En virtud de lo expuesto, y de conformidad con las previsiones de la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima, y resto de normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primer.— Prohibir de forma preventiva y temporal la pesca de la angula en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco, hasta que se dicte disposición en contrario.

Segundo.— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Tercero.— La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de octubre de 2003.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.